

BALOREZKO PROPOSAMENA

Lehenik eta behin, gure ideia betaurrekoak haizetako-garbigailuekin egitea da. Horrela, ezustekoren bat gertatuz gero, temperatura aldaketak direla eta, euria hasiz gero, betaurrekoak zikindu direlako... guk ezer ere ez egin gabe edo garbitu ordez, bakarrik garbituko dira. Esan nahi duguna, guk diseinatutako betaurrekoentzako haizetako-garbigailuak, betaurrekoak garbitzeko aukera eta posibilitate bikaina eskaintzen dutela da.

Produktu hau nobedade bat da. Gure bezeroei eskaini nahi dioguna da, eguraldi txarra egiten duen egunetan hain deserosoa izan ez dadin, ukipen-lenteak erosi beharra ez izatea... Azken finean, ukipen-lenteak erosiz diru asko gastatzen da; izan ere, ukipen-lente bakoitzak hilabete bat bakarrik irauten duelako, eta gainera, bat galtzen bazaizu berriro erosi behar izango duzu, eta hori ekiditeko guk egin behar ditugun betaurrekoak haizetako-garbigailuekin erostea izango da ideiarik hobereana.



Alde batetik, eguraldi txarra egiten duenean eta kalean edo tabernetan zaudenean ezustekoan harrapatzen bazaitu, betaurrekoak garbitzeko erraztasuna emango dizu, zior gaude hobeto ikusiko duzula.

Beste alde batetik, erraztasuna edukiko dute motorrean ibiltzen direnek, txirrindulariek, baita hainbat kiroletan ibiltzen diren pertsonak ere. Esate baterako, motorrean zoazela kalean barrena eta euria hasiz gero,

erabilgarria izango da ez oharkabetzeko eta istripuak ekidin ahal izateko. Kiroletan ere, korrika egiten, adibidez, betaurrekoak busti egiten dira, eta jende asko betaurrekorik gabe eta ukipen-lenterik gabe ateratzen denez, aukera paregabea da gure betaurrekoak erosteko, eta gehiago ez kezkatzeko!



Bukatzeko, betaurrekoen prezioa ez da hain garestia, izango duen kalitate onerako. Ez ditugu izugarrizko markak eskainiko, baina, hala eta guztiz ere, egingo ditugun betaurrekoak ez dira kalitate txarrekoak, hau da, nahiz eta marka altuko betaurrekoak ez izan ez du esan nahi azkar puskatuko direnik. Guztiz kontrakoa, oso seguruak dira gure betaurrekoak, eta horregatik uste dugu ikaragarrizko eskaintza saltzen ari garela. Horrez gain, diseinuaren aldetik, esan beharra daukagu, haizetako-garbigailuak oso diskretuak izango direla betaurrekoen monturan ezkutatuta egongo direlako.

